

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
HERRITARRAK BATZORDEAREN 3. BILERA**

Bertaratutakoak:

- Ekaitz Aranberri (Euskara, Gazteria, Komunikazioa eta Partaidetza arloko zinegotzia)
- Kristina Markina (Kultura arloko zinegotzia)
- Mainer Osa (Kultura teknikaria)
- Estepan Plazaola (Euskarako zerbitziburua)
- Iñaki Ugarteburu (Kiroletako zerbitziburua)
- Nagore Narbaiza (Hezkuntza eta partehartze teknikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 12:00

Aholkularitza-taldeko kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz eta “Bergara 2030 egim herrixa” prozesuaren baitan maiatzean eta ekainean zehar antolatutako herritarren gaikako mahaietan jasotako ekarpenak baliatuz, Herritarrak Batzordean lantzen diren arloekin zerikusia duen Plan Estrategiko Jasangarriaren zirriborro berria aurkeztu dute. Era berean, gaurko bilerarekin batera bidalitako Plan Estrategikoaren zirriborroarekin alderatuz izan diren aldaketa nagusiak laburbildu dituzte. Horrela, “4.2.1 ekintza: elkarteei eta bestelako eragileei behar dituzten espazioak eta baliabideak erraztu eta laguntza eskaini” bitan banatzea proposatu dute, espazioak alde batetik (hauek era berean erabileraren arabera ere banandu daitezke, esaterako, sormenerako eta kontsumo edo eskaintzarako direnetan) eta baliabideak edo laguntzak, bestetik. Horrela, ekintzen zehaztasuna handiagoa izango da (herritarrek ere hala eskatuta) eta, era berean, ekintzon betetasun maila edo jarraipena egiteko balorazioan lagunduko du.

Ondoren teknikariek Plan Estrategikoaren zirriborroari ekarpenak egiteko aukera izan dute:

4. Helburu estrategikoaren gainean:

4.1. Jarduera lerroa:

Orokorrean, Euskararen Plan Estrategikoan biltzen den guztia jasota dago, baina desberdin antolatuta (Plan Estrategikoan sektoreka antolatuta dago eta egokitzat jotzen da Plan Estrategikoaren antolaketa ere berdina izatea). Plan hori 4 urtero egiten da, herritarren partaidetzarekin.

- 4.1.1. eta 4.1.2. ekintzen artean alderik ez da ikusten.
- 4.1.1. Ekintza: Euskara

- “Arnasgunea” kontzeptua ez da egokitzat jotzen, Bergara ez baitago arnasgune moduan klasifikatuta. Horren ordez, “Arnasgunea izateko bidea egin” proposatu da.
- “Euskal erreferente...” esaldia ere ez da ikusten, Bergara ez baita arnasgune, beraz, 4.1.1.ren baitan legoke.
- Lehenengo jarduera interesgarri ikusi da (“Elkarren arteko harremanak euskaraz izateko herriko entitateen arteko akordio, hitzarmen handi bat osatzea”), egun egiten baitabilza.
- Hirugarren jarduera (“Jardun” elkarte gazteengana hurbiltzea, ekintza puntualen bidez (euskal youtuber-en arteko txapelketa antolatzea, ...), kendu egingo lukete, baita Youtuber-ena ere. Gazteen atxikimendua beste era batera lortu beharko litzateke euren ustez, adibidez, udalerrri desberdinetako gazteen arteko udalekuak antolatuz.
- 4. Jarduera (“Ikastetxe ezberdinetako patioetan ume eta helduentzat euskararekin lotutako jarduera ezberdinak antolatzea eskola-orduak amaitutakoan. Izan ere, arratsaldeetan guraso eta ume ugari egoten baita atarian eta hori momentu egokia izan daiteke guztion artean euskal giroa sortzeko (jolasak, ipuin-kontalariak, bertsoak, txotxongiloak, musika kontzertuak, etab.), ikastetxeetako patioak baliatzearena, zaila ikusten da, hainbat arrazoi medio: ikastetxe guztiei eskaintza bera ematen dela bermatzea zaila da (gainera, horrela ez bada gertatzen, arazoak sortu ohi dira), patioak kultura eskaintzak antolatzeko ez dira espazio egokiak, patioan aritzen diren ikasleen adin tarte txikia da (LH 2. edo 3.mailatik berakoak soilik), etab.

Horien ordez, zenbait ekimen edo aukera aipatu dira:

- Errefortzu saioak, extraeskolarrak... bezalako ekimenak baliatzea euskara gaitasuna indartzeko (baita kirolak, kultura...).
- Gurasoei aholkularitza eta espazioak eskaintzea (“Auzoko” moduko ekimena, baina eskola komunitatearen baitan).
- Guraso elkartearen bitartez ere ekimenok aurrera eramatea.
- Udalekuak ospatzea, komunitate sentimendua sortzen dutelako eta, era berean, euskara nahiz kultura bezalako gaiak lantzeko edo horiekiko atxikimendua lortzeko potentzialtasuna izan dezaketelako.
- Ekintza zehatz esanguratsuak garatzea (hau da, alde zehatzetik antolaketa-lan handia dutenak) asmatuta dagoen edo asma daitekeen abesti erakargarriek atxikimendua edo komunitate sentimendua sortzen dute (Gure Esku Dago ekimenekoak bezala, adibidez).

- 4.1.3. Ekintza: “Auzoko” programa, etorkinak euskarara gerturatzekoa, bertan behera geratu zen. Hori berraktibatu beharko litzateke eta auzora eraman, izan ere, etorkinek bizia herrigunean baino, auzoan egiten baitute.
- Euskararen ikasketa doakoa izateari dagokionez, ezinbestekoa dela aitortzen da, baita ekonomikoki bideragarria ere. Gutxienez, B2 mailara arte (hori barne) hala beharko lukeela izan.
- “Pertsonen aktibazioa” kontzeptuaren falta sumatu da (Euskaraldia eta antzeko ekimenak bideratzea).
- “Hizkuntzen teknologia” kontzeptua ere bai, “Inteligentzia artifizialak hizkuntzen teknologian dakarren iraultza” esaldia, zehazki. Teknologia baliatzea hizkuntzen erabilera eta ezagutzarako (adibidez, momentuko itzulpenen bitartez hizkuntza desberdineko herritarren arteko komunikaziorako).
- Esparru digitalak lehentasunezkoa behar du izan.



4.2. Jarduera lerroa: Kultura

▪ 4.2.1. Ekintza:

- “Arrizuriaga” espazioa aipatu ordez, irekita uztea, hau da, espazioen azterketa egitea (espazioen potentzialtasuna eta herritar edo eragileen eskaerak balioztatuz) eta horren araberrako erabilera ematea (egokitzapenarekin batera).
- Egungo Udal lokalen izaera anitzak inbertsioa zailtzen du, beraz, egokia litzateke aztertzea egun dauden lokalen egoera hobetzeko inbertsioa bideratzeak merezi duen ala espazio handi bakar baten baitan lokal berri

unifikatuak eraiki behar diren. Hau da, lokalekiko politika bat zehaztea beharrezkotzat jotzen dute.

- Elementala eraikinaren aipamenik ez dago, berarekin egin nahi denaren inguruan, alegia.
- 4.2.7. Ekintza: azpiko ekintzetan banatu (kultura eta aisia bananduz, agian).
- 4.2.5. inbertsioarenarekin lotu (hau da, 4.2.4 ekintzarekin).
- 4.2.2. ekintza 4.2.1.-ren barruan sartzea proposatu da.
- Kulturaren Udalak zubilana egitea, hau da, ez soilik eskaintzara mugatzea, baizik eta “Dinamo” ekimena, bekak... aurrera eramatea. “Kultur mediazioa” egitea.

4.3. Jarduera lerroa: Kirola

- “Egokitzeko” hitza “inbertsioaren plangintza”-rekin ordeztzea. Plangintza horrek bere baitan izango luke azterketa egitea ere. Horren baitan sartuko lirateke gainerako ekintza edo jarduera zehatz oro.
- Egungo premiak asetzeaz gain, etorkizunekoak ere aurreikustea eta horiei erantzutea ezinbestekoa da.
- Plangintza egiteaz gain, zenbait ekintza modu paraleloan gauzatu daitezke, bestela, ekintza oso abstraktu eta orokor geratu delako inpresioa izan dezake herritarrak.
- Hurrengo urtean dagokigu plan estrategikoa egitea. 4.2.7. Ekintzaren baitan zerrendatuta dauden jarduera ugari plan horretan barneratuko dira.
- 4.2.7. Ekintza: aisia eta kirolaren artean banandu, ekintza berria sortuz.
- “Haurren hiria” kontzeptua faltan bota da. Filosofia horren baitan, Bergara Herri hezitzailea izatea sustatzea. Aholkularitza-taldeko kideek aipatu dute Plan Estrategikoaren zirriborroaren beste helburu zehatzen baitan dauden ekintzetan ere aipamena egin zaiola Bergara Herri Hezitzaileari.
- Hezkuntza formala eta ez formalak sarean lan egitea.
- Hezkuntza mahaia sortu: bertan adostu beharko lirateke epe ertain luzean martxan jarriko diren egitasmoak zeintzuk izango diren.
- Kultura ondarearen transmisioaren garrantzia azpimarratu da.
- UNED eta Udalaren arteko sinergiak batu, UNED herritartzeko eta herritarrek UNED-eko espazioak erabiltzeko aukerak irekiz.
- Eusko Jaurlaritzarekin batera, segregazioaren gaia herri mailan lantzea. Proiektu pilotu bat martxan jartzea.

Ekintza edo jarduera transbertsalak:

- Irigariki panel bat sortzea, toki fisiko nahiz birtuala dituen, non hizkuntza, kultura, kirola... bezalako eskaintza nahiz eskaerak iragarriko diren eta herritarren arteko elkarrekintzak sortzeko bide izango diren. Egun Goiko Rock-ek antzeko zerbait egiten du, baina herriko elkarte bat denez, horrelako lanketa egin dezan ezin zaio eskatu; Udalari legokioke.
- Elkartegintza sustatzea (batik bat, gazteen artean, errelebotza bilatuz) eta partaidetza hori lantzeko pedagogia egitea (informazioa zabalduz, gurasoekin landuz...).
- Elkarreei laguntza ematea (ekonomiko nahiz pertsonala).



5. Helburu estrategikoaren inguruan honako proposamenak egin dira:

- “Begarako enbaxadoreak” kontzeptua barneratzea, hau da, Bergaratik alde egindako herritarrekin ekimenak aurrera eramatea, duten ezagutza edo testuingurua baliatuz.
- Partaidetzaren organo egonkor bakarra martxan jartzea proposatu da: 18 urtetik gorakoek osatutakoa izatea, gazteen presentzia bermatuko duena, modu orekatuan (gazte, heldu eta adinekoena), baita gizon, emakume, auzo, erdigune, jatorria.. ere.

Partaidetza teknikariaren proposamen zehatzak ere jaso dira, gainerako puntuen inguruan:

1.2. Hiri mugikortasun jasagarriaren garapena bultzatu.

- Mugikortasun inklusiboa bultzatzeko egin beharreko urbanizazio lanak gauzatu, ez soilik sentsibilizazioa.

- 30Km/h-ko herria bultzatzeko neurriak hartu (sentsibilizazioa eta isunak).

1.3. Berdegune eta natura ondarearen kudeaketa eredu berria.

- Berdeguneen erabilera sustatu adin tarte ezberdinetako pertsonak erabili ditzaten: jolaserako, bainurako... Elementu naturalen erabilpena parkeetan. Dinamizazio aukerak aztertu (abentura kirola...). Diseinu posibleak egin.

3.1. Herritarrei eskainitako gizarte zerbitzuei eta prestazioei buruzko kalitatea hobetzea, horien eraginkortasunean sakonduz.

- Herritarrengandik hurbilago egongo diren gizarte zerbitzuak eskaini; espazio berri bat, zain egoteko espazio erosoak, umeak egoteko gunea, harrera egingo duten langileak.

3.3. Herri integratzaile eta inklusiboa garatzea, herritarren aniztasun ezberdinak aintzat hartuz.

- Aniztasun funtzionala duten haur, nerabe, gazte eta helduei zuzendutako aisialdi eskaintza osoa sortu eta udaletik eskaini. Ez dadila elkarte pribatuak menpe egon.

Udalak erakunde moduan landu beharrekoak ondorengoak izango lirateke:

- Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen etengabeko hobekuntza eta herritarrenganako hurbilketa sustatzeko aztertu:
 - Eskainiko diren zerbitzuen definizioa.
 - Espazioen erabilera eta azterketa.
 - Plantillaren azterketa: langile nahikoa dagoen eta egitekoak ondo definituta dauden jakiteko. Planifikazioa egiteko.
 - Behin behinekotasun egoerari irtenbidea eman.
- Udaleko egiturazko zerbitzuek ere plan estrategikoan parte hartzea barne mailan eman beharko diren urratsak definitzeko.

Bilera 14:00tan amaitu da.